

Zain dauden proiektuak

2021erako zerga eta tasa ordenantza

Murgiako Lanbide Heziketako Institutua

Zuiako diru-laguntzak COVID 19aren aurrean

Egindako ahalegin guztiagatik, udal esker ona

Zuia 02, Itziar Autozerbitzua eta Osasun-zentroa

2020ko negua

ZUBIA

Zuiako udal aldizkaria



Berriak

- 3** Olentzeroren eta Mari Domingiren gutuna
- 4** 2021erako zerga, tasa eta zerbitzu publikoen ordenantza
- 6** Zuiako diru-laguntzak pandemiak gehien kaltetutako kolektiboentzat
- 7** Egindako ahalegin guztiagatik, udal esker ona
Elisa Montes Beneitez, Zuiako 02 Kirol Klubaren presidentea
Marian Ruiz de Erentxun, Itziar Autozerbitzuaren bazkidea
Beatriz Mendoza, Zuiako Osasun-zentroaren erizaina
- 10** Zain dauden proiektuak, ¿zein egoeratan daude?



4



6



7



10



13

Atalak

- 13** ZubiAgenda
- 14** Udal liburategitik iritsitako gomendioak
- 15** Ikastetxe publikoak: Murgiako Lanbide Heziketako Institutua



14



15

ZUBIA - Zuiako udalerriko aldizkaria - 2020ko negua

Azalaren argazkia: 'Kirikiño', Urtzi Azkarraga.

Edatzailea: **Zuiako Udala** · Udal Plaza 1 · Murgia 01130 · ARABA · T_945 430 005 · zuiako.general@ayto.araba.eus · www.zuiako.eus · Koordinazioa eta erredakzioa: Rosa Ortiz de Mendivil · Diseinua eta maketazioa: www.hirudesign.com · Inprimaketa: www.graficasirudi.es · Ale kopurua: 1.100

ZUBIAko testuak edota argazkiak zabalteko, editatzaileari baimena eskatu behar da.
Irakurri ere udalaren sare sozialetan:



www.facebook.com/ZuiakoUdala



[@ZuiakoUdala](https://twitter.com/ZuiakoUdala)



Olentzeroren eta Mari Domingiren gutuna

Kaixo, Zuiako neskatu eta mutikoak:

Mari Domingi eta Olentzeroren laguntzaile bat nauzue. Badakizue urteko sasoi honetan lanpeturik egoten direla oso. Haien aginduta, idazten dizuet honako gutun hau.

Ondo dakizue aurten oso urte arraroa izaten ari dela. Etxean luze egon zarete itxita, lagunekin jolastera joateko aukerarik gabe. Ordu asko egin dituzue egunero, eskolako lan amaiezinetan: matematikako problemak, euskarako irakurketak, natur zientzietako irakasgaiak... Baina, patio edo parkera ezin atera.

Amama-aitite ikustera ere ezin izan duzue joan eta, joan zaretenean, musukoa jarrita eta musurik eta besarkadarik ere ezin eman diezue. Urte zinez tristea.

Ikasi duzue eskuak sarri garbitzen, leihoak eta ateak irekitzen, musukoa behar bezala jartzen... Eskolan esan dizute zintzo eta formal zabilatzatela ikasgela, korridore eta jolaslekuan. Bazenekiten. Gu ere hala ibili gara. Etxean giltzapeturik, baina lasai. Moldatu gara Egoberrietako operariak, jostailuak, ipuinak, liburuak eta gozokiak prestatzeko. Oraindik ez dugu guztia amaituta eta, lan handia geratzen zaigun arren, garaiz iritsiko gara zeuen etxetara.

Zoritxarrez, guztion osasuna zaindu behar duguez. Olentzero eta Mari Domingi ez dira joango Zuiara zuen gutunak hartu eta zuekin egoteko. Entzungo zenuten, seguruenik, irrati eta telebistan gainontzeko tokietara ere ez direla joango. Urte tristea.

Hala ere, pozik egon behar dugu eta gurasoak eta neba-arrebak, aiton-amonak eta gainerako guztiak animatu, egoera hau pasatuko delako eta, datorren urtean, Egoberri 'normalak' gozatu ahal izango ditugulako.

Horixe da Mari Domingi eta Olentzeroren mezua. Gainera, pozik, alai eta zintzo bagabiltza...

#Zergak #Tasak #PreziosPublikoak

2021erako zerga, tasa eta zerbitzu publikoen ordenantza onartu da



Zerga gehienak izoztu egin dira. Bakarrik igoko da Zaborren Tasa: %4, beraz etxe bakoitzak 3€ gehiago ordainduko ditu urtean; ostalaritzak erdia ordainduko du. OHZri % 95eko hobaria emango zaio gehien kaltetutako pertsona eta taldeentzat.

Zuiako Udalak, urriko osoko bilkuran, 2021erako tasa eta zergen ordenantza onartu du. Pandemiaren ondorioz bizi dugun errealitate sozio-ekonomikoa aztertu ondoren dator araudi berri hori. Eta progresibotasun eta iraunkortasun-irizpideetan oinarritutako tasak eta zergak ere badira. Onartutako ordenantzak udal tasa eta zerga gehienak izoztuta mantentzen ditu eta soilik 3 aldaketa erregistratu ditu:

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA.

Arabako Foru Aldundiak 2021erako katastroko balioen txostena egin eta onartu ondoren, Zuiako Udalak OHZren balioak egokitu ditu, diferentziala 0,26tik 0,28ra pasatuz. Foru arauaren arabera, koefiziente horrek 0.30ekoa izan beharko luke, eta, beraz, Zuian azpitik egongo ginatke oraindik.

Gobernu taldearen (EH Bilduk gehiengoa du 6 ordezkariarekin) aldeko botoekin eta gainerako alderdien kontrako botoekin onartu da puntu hori. Hobariei dagokienez (ikusitakoak), kasu batzuetan % 95era irits daitezkeen kenkariak aplikatzea aurreikusi da. Helburua da une honetan pandemiak gehien kaltetutako pertsona eta kolektiboak laguntzea. Proposatutako aldaketan eta aurreikusitako hobarien ondorioz, udalaren diru-sarrerak murriztu egingo dira datorren urtean. Kontuan izan behar da zergak, eta zehatzago OHZ, udalaren bigarren diru-sarrera iturria direla. Lehenengoa Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa (TEFFF) dugu; iaz jasotako diru kopuruarekin alderatuta, ia 100.000 euro murriztuko dena. Azkenik, gogoratu zergadun guztiak eska dezaketela OHZ bi ordainketatan zatitzea.

OHZ hobariak	0 zatia	1. zatia	2. zatia	3. zatia	4. zatia
Familia-unitateko kide kopurua	Errenta <14.500 €	14.501 €tik 21.000 €ra	21.001 €tik 29.000 €ra	29.001 €tik 38.000 €ra	38.001 €tik 42.000 €ra
1	%90	%75	%10	% 0	%0
2	%95	%80	%50	% 0	%0
3	%95	%95	%80	%50	%0
4	%95	%95	%95	%80	%50
5 edo gehiago	%95	%95	% 95	%95	%90



URAREN TASA. Uraren tasa izoztu egin da, kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko egungo prezioak mantenduz. Aldaketa bakarria kontagailuen irakurketan dago: orain arte egin den moduan urtean 2 irakurketa hartu beharrean, 2021etik aurrera 3 egingo dira; hau da, kontagailuak lau hilean behin irakurriko dira. Neurri horren bidez, batetik, kontagailu partikularretan detektatu gabeko ihesak azkarrago aurkitu nahi dira, eta, bestetik, udako hilabeteetan gehiegizko ur-kontsumoa zigortu nahi da, garai horretan izaten baititugu arazo handienak, gure etxeetan hornidura-urik ez dagoelako; eta, era berean, garai horretan gertatzen baitira beste erabilera batzuetatik eratorritako gehiegizko kontsumoak. Kontsumo-tarteak modu proportzionalan egokitu dira hiru irakurketetara. Aldaketa hori alderdi politiko guztien aldeko botoarekin onartu da.

ZABOR-TASA. % 4 igo da. Hortaz, etxe bakoitzak 3,07 € gehiago ordainduko ditu urtean hondakin guztiak bildu, erretiratu eta kudeatzeagatik. Igoera horrek zerbitzuak duen % 32ko defizita murrizten joatea ahalbidetuko du. Izan ere, benetako kostua

ordaintzeko, etxe bakoitzak 25 € gehiago ordaindu beharko lituzke urtean. Hala ere, igoera horrek espero baino eragin txikiagoa izango du zaborren tasan dugun defizitaren murrizketan; izan ere, Gasteizko Udalak tasak izoztu ditu bere herritarrentzat, baina isurketa-tasa igo egin da Jundizko lantegian. Planta horrek edukiontzi griseko hondakin guztiak kudeatzen ditu, eta, beraz, igoerak Arabako gainerako biztanleei eragiten die.



Ostalaritzaren kasuan, pandemia gehien kaltetzen ari den sektoreetako batenez, aplikatzen zaizkion murrizketen ondorioz, % 50eko murrizketa onartu da 2021erako zaborren tasan. Beraz, erdia ordainduko dute.

#DiruLaguntzak #COVID19

Udalaren diru-laguntzak pandemiak gehien kaltetutako kolektiboentzat



Udalak hainbat neurri jarri ditu martxan pandemiaren ondorio ekonomikoei aurre egiteko.

Besteak beste, udan aho batez onartu zen gure udalerrian zerbitzuak eskaitzen dituzten txikizkako merkataritzari, ostalaritzari, jatetxeei eta autonomoei laguntzak emateko deialdia. Helburua zen jarduera uztera behartuta zeuden establezimenduei edo diru-sarreraren % 30etik gorako jaitziera izan zuten establezimenduei laguntzea. Diru-laguntzak hiru ataletan banatu ziren: egitura-gastuetarako laguntzak, jarduera eta langile-kopuru bakoitzeko zuzeneko laguntzak, eta aurrerakin itzulgarriak (interesik gabeko maileguak, 5 urteko itzulketa-epearekin). Deialdira enpresa txiki, profesional eta autonomoen hogeit bat eskaera aurkeztu ziren, eta guztiek, 3k izan ezik, deialdiaren oinarrietan azaldutako baldintzak betetzen zituzten. Guztira 90.000 euroko laguntzak eman dira, eta horietako gehienak aurrerakin itzulgarriei dagozkie, negozio txikiak eta Zuian lan egiten duten profesionalak jasaten ari diren diru-sarrera faltari aurre egiteko. Beste laguntza-ildo bat kaleratzeak edo ERTEak jasan dituzten familientzat izan da, kasu bakoitzean familia-unitatearen diru-sarrerak kontuan hartuta.

Zeharkako laguntzak

Udalerriko establezimenduei ere laguntzen ari zaie zeharka. Udalak martxoaren erdialdetik abuztuaren amaierara arte programatutako jarduerak bertan behera geratu zirenez, Kulturaren aurrekontuaren zati bat argazki lehiaketa batera bideratu da. 6 astean behin gai ezberdin bat proposatzen da eta 4 argazkirik onenak aukeratzen dira. Hautatutako bakoitzak 150 euroko txartel bat jasotzen du Zuiako establezimenduetan gastatzeko (tabernetan, jatetxeetan, ile-apaindegietan, norberaren zaintzarako zentroetan, ostatueta...). Behin saila amaituta, urte amaieran, aurretik hautatutako irudi guztien artean lehiaketako 2 argazki onenak aukeratuko dira. Beraz, Kulturarako partidatik 3.000 euro baino gehiago banatuko dira tokiko 20 establezimenduren artean. Gainera, 2021ean ostalaritzak % 50eko jaitziera izango du zaborren tasan, osoko bilkuran onartu zenez, pandemiak iraun bitartean ezarritako edukiera, mugikortasun eta itxiera murrizketek gehien kaltetu duten sektoreetako bat delako.

ESKERRIK ASKO ZUIA!



Osasun-langileei, hezkuntza-zentroetako langileei, merkatariei, garbitzaileei, nekazariei, abeltzainei, garraiolariei, kirol-klubei, kultura-elkarteei... eta gainerako Zuiako herritarrei gure esker ona.

Aurten bizitzen edo pairatzen ari garen osasun-larrialdiak muturreko egoera batean kokatu gaitu, geure erosotasun-esparrutik mugitu eta egotzi gaitu. Birus ezezagun batek erakutsi eta frogatu digu lehengo segurtasun itxurazko hura ez zela hain segurua. Nolabait, munduko populazio gehienak, gure lehenengo mundu garatu honetatik at bizi (irauten) duen populazioak, hain zuzen, egunero bizi ohi duen sentipena izaten ari gara, segurtasun-ez honek aztoratuta gauzka, zer egin, nora joan, norengana jo ez dakigularik. Hala ere, hamaika adibide dauzkagu geure inguru hurbil honetan, geure udalerritik txiki bezain eder honetan, animoak altzarazi eta etorkizunari baikortasunaz begiratzeko arrazoiak eskura jartzen dizkigutenak.

Horixe da artikulu honen helburua. Esan bezala, bitariko helburua du: batetik, jendearen animoak altzatzea eta, bestetik, esker ona agertzea gure inguruan adorerik galtzen ez duen hainbat bizilagun eta auzokideri. Hona zenbait adibide: Esker ona agertu nahi diegu, nola ez, osasungintzan diharduten profesional guztiei, direla mediku, erizain, farmazialari, administrari, laguntzaile zein garbitzaile. Egoera txarretan, baliabide eskasekin, lehenengo lubakian aritzen dira etsai ezezagun honek leharzkeen arriskuak bost axola zaielarik.

Esker ona agertu nahi diegu gure adinekoak zaindu eta babestu dituzten pertsona guztiei: adinekoen egoitzetan zein nork bere etxean, egoitzetako langile zein adinekoaren senide.

Esker ona agertu nahi diegu eskola, institutu eta gainerako hezkuntza-guneetan diharduten maisu-maistra, irakasle, atezain, monitorea, jangelako zaintzaile, garbitzaile eta gainerako guztiei. Etixeratuta egon garen bitartean sekulako lana egin baitzuten une batetik bestera eraikitako urruneko hezkuntza-sistema osatzeraino. Gizarteak seguruenik merezi beste eskertzen jakin ez dugularik.

Eskerrak eman behar dizkiegu geure merkatu, denda eta ostalaritza bizirik mantentzearen lan egiten duten pertsona guztiei eta bertara joaten diren bezeroei.

Zer esanik ez, gure nekazari, ortulari eta abeltzainei. Bai eta garraiolari eta beste hamaika lanbidetan ibili eta aritutakoei. Beraiek egindako lanari esker, ez dugu denda eta etxeetan deusen faltarik izan. Bai eta kultura, kirola eta aisiaren arloan, profesionalki nola bolondres gisa, baldintza ezin txarragoetan ahaleginak eta bost, sarri askotan, ezertarako balio izan ez duten ahaleginak egiten aritu direnei.

Oro har, zuia guztien portaera eskertu beharrean gara. Pandemia honetan zehar, komunitate gisa aritu garela, akatsak eta zuzendu beharrekoak baditugu. Baina bide onean goaz eta horrela segituz gero, nork bere jarrera eta portaera komunitateari begira jarrita, ongi aterako gara osasun-egoera larri honetatik.

Xede hori harturik, baikortasunez jokatu behar dugu, urkoa animatu, urkoa zaindu eta etorkizunari irribarretsu begiratu.

Elisa Montes Beneitez, #Zuia02ko zuzendaria

“Gabonetako etenaldiaren ostean jarduerari berriro ekitea espero dugu”

Elisa Montes Beneitezek 2 hilabete eskas daramatza Zuia 02 Futbol eta Saskibaloia Kirol Klubaren presidente gisa. Bertan, Zuia, Urkabustaiz eta Zigoitiko 200 neska eta mutil baino gehiago aritzen dira, 6 eta 18 urte bitartekoak. Edo, hobeto esanda, aritu ziren, ikasturte honetan “dena geldirik dagoelako”, dio Elisak. “Oraintxe bertan*, eskola-kirola eta kirol federatua etenda daude Covid araudiaren arabera. Lan handia eginez hasi genuen iraila: protokoloak, baimenak, batzorde berezi bat izendatu eta hori guztia gurasoei jakinarazi genien. Ikasturtea zalantza askorekin hasi zen, entrenamenduak baimendu ziren, baina lehiaketak ez, eta azaroaren hasieran dena debekatu zen berriro. Zentzu horretan, inpotentzia sentsazioa daukagu”, aitortu du. Hala ere, jasotako laguntza eta sortu den giro ona azpimarratzen du. “Hain egoera zailan, udalak eta kiroldegia erraztasun guztiak eman dizkigute. Eta kezkak eta zalantzak partekatu ditugu Zuiako beste



Elisa Montes (erdian), Arantza Valle eta Monica Landa, Zuia 02 Kirol Taldeko zuzendariak.

kirol talde batzuekin. Eta familiekin, ulertu dutelako eta denean lagundu dutelako”. Klubean Gabonetako etenaldiaren ostean egoerak jarduerari berriro ekiteko aukera ematea espero dute. “Gelditzea oso gogorra eta kudeatzeko zaila da hain klub txikiarentzat. Itzultzeko gogo handia dago. Gure taldeek elkartu, kirola eta jolastu egin nahi dute, betiere osasun-baldintza egokiek. Urtarrilean egin ahal izatea espero dut”, adierazi du presidentek. (*: elkarrizketak azaroaren 30etik abenduaren 4ra bitarteko astean egin dira)

Marian Ruiz de Erentxun García de Cortázar, Itziar autozerbitzua

“Jendea oso ondo portatu da, animoak ematen zizkiguten, ahal zuenak maskara bat ekartzen zigun...”

Idoia eta Mari Puyrekin batera Marianek kudeatzen duen saltokiak ez ditu atean itxi, ezta egun bakar batean ere. Funtsezko zerbitzutzat hartu zuten, eta, hasierako ziurgabetasunari, beldurrari eta informazio faltari aurre eginez, dendan egon dira egunero, erosketak beste era batera egiten ikasi behar izan duten bezeroak artatuz. “Gogorrena edukiera bat izatea izan da, jendea kalean zain egotea, lehen hilabeteetako estresa... Baina jende guztia zoragarri portatu da, animoak eman dizkigute, hasieran musukoak eta gela ekartzen zizkiguten, eta gero udalak ekarri zizkigun”, azaldu du Marianek. Gaur egun, erritmo onean jarraitzen dute lanean eta “batez ere, bermu asko, garagardoak eta aperitiboak saltzen ditugu. Eta fruta eta hestekiak, beti bezala”. Aitzitik, deitoratzen du pertsiana jaitsita beste establezimendu ako ikustea. “Ez diot



Marian (erdian), Mari Puy Ruiz de Erentxun eta Idoia García de Cortázar.

zentzurik ikusten batzuk ireki eta beste batzuk ixteari. Badakigu egoera zaila dela, oso zaila dela ondo egitea, baina ez dut ulertzen ostalaritza osoa ixtea. Eta are gutxiago lokalak prestatzen gastatu dutenaren ondoren”, bukatu du.

Zuiako #OsasunZentroa

“Normaltasuna berreskuratu dugu, argia ikusten ari gara”



Zuiako Osasun-zentroko lantaldeko hainbat kide. Pandemiaren aurretik egindako argazkia.

Beatriz Mendoza Perez de Mendiguren (lehenengoa ezkerretik hasita) udalerriko Osasun-zentroko erizaina da duela 24 urtetik. “3 eta 4 belaunaldi zuir ezagutzen ditut. Nire lanbidearen onena da, beraiekin dugun konfiantzazko harremana”, kontatu digu. Mati Iturralde, Estibaliz Gil eta Jose Manuel Fdz. Donis (medikuak), Javier Ortiz (pediatra), Rebeca Ugarte (erizaina), Cristina Zorrozueta eta Aroa Guerra (administrariak) eta Pilar Lopez Apodaca (garbitzailea) bere lankideak dira eta “guztiok, une honetan, ikusten dugu argia behingoz. Txerto bat izango dugu, herritarrak immunizatzen. Eta zentroan normaltasuna berreskuratu dugu. Noizbehinka telefonoak kolapsatuta izan ditugu, baina orain beti bezala ari gara lanean. Aldez aurretik telefono bidezko hitzordua eskatu behar da, administrariak kontrol-galdera batzuk egiten dituzte jakiteko ea sukarra, beherakoa dagoen, edo PCR bat duela gutxi egin zaien... eta dena normala bada, etorri egiten dira eta segurtasun-neurri guztiak artatzen ditugu, gel hidroalkoholikoa, eta abar ematen zaizkie. Gripearen kanpaina, esate baterako, oso ondo joan da udalak prestatu digun karparekin. Izan ere, 65 urtetik gorako pertsonen % 70ari* jarri diogu txertoa, aurreko urteetan baino kopuru handiagoa; besteak beste, Zuian geratu diren udatiar askori -hemen murrizketak eramangarriagoak direlako-gripearen txertoa jarri zaie osasun-zentroan”.

Bizitza-lezioa

Atzera begira, gogoratu du “martxoan eta apirilean bizi izan genuen ziurgabetasuna; ‘zomorroa’, pazienteek esaten zioten bezala, erabat ezezaguna zen. Kontuan izan hasieran, Osakidetzak ebolaren aurreko osasun-alarman bidalitako norbera babesteko ekipoekin (NBE) lan egin behar izan genuela. Eskerrak ekipamenduak ondo gorde genituela! Pandemiaren hasieran oso baliagarriak izan zitzaizkigun”. Unerik latzenen artean, “lankide bat gaixotu zenean eta ospitaleratu behar izan zutenean. Eta adinekoren egoitzetako agerraldiak. Kezka handiz bizi izan genituen momentu horiek”, aitortu du. Izaera baikorren, “ikasi dugun guztiarekin” geratu da Bea. “Gure lanbidea dedikazio handiko lana da, bokazio handikoa; helburua besteak zaintzea da. Hasierako pandemian, martxoan, norbait ospitaletik irteten zen bakoitzean, errekuperatzen zenean eta sendatuta ikusten genuenean... sekulako poza izan zen talde osoarentzat. Eta hala izaten jarraitzen du”. Amaitzeko, “haurren portaera bikaina” nabarmendu nahi du. “Hainbat hilabetez etxean geratu behar izana, protestarik egin gabe eta dena barneratuta: eskuak garbitu, gela, musukoa... Miresgarriak dira. Egokitzeke adierazi duten ahalmena, bizitza-lezioa izan da guztiontzat”. (* 2020ko abenduaren 9ko datua)

#Pauldarrak #UrHornidura #AlokairukoEtxebizitzaSozialak #KiroldegiarenEraberritzea #KulturEtxea

Zain dauden proiektuak, ¿zein egoeratan daude?

Azken urteotan hitz egin izan da, baita askotan Zuiako Udalaren aldetik ere, zehaztu ez diren udalerrira begirako proiektu estrategikoei buruz. Jarraian erreparatuak ditugu, beren egungo egoeraren berri emateko.

Pauldarren Ikastetxea

Zuiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak adostu zuten bezala, udalak eraikina eta lursailak erosi zituen, udalerriko irakaskuntza publikoko ziklo guztiak bertan kokatzeko. Jaurlaritzak, aldiz, bere konpromisoak bete gabe jarraitzen du; horietako lehena, eraikina eraberritzeko eta birgaitzeko proiektua egitea. Hezkuntza Sailak udal honekin inolako komunikaziorik ez duenez, prentsaren bidez dakigun gauza bakarra da urrian proiektua bulego tekniko bati esleitu zitzaiola.

Proiektuari buruzko informazioa izateko eta haren garapenean parte hartu ahal izateko gaiaren gainean jarraituko dugu, udalerriko hezkuntza-komunitatearekin batera.



Ur-hornidura

Uda garaiko ur eskasia eta urte sasoi horretako Baias ibaiaren egoera larria duela hamarkada bat baino gehiagotik pairatzen ari garen arazoa da. Hala ere, ez da lehentasunezko kontua ez URarentzat (Uraren Euskal Agentziarentzat), ez Eusko Jaurlariarentzat, ezta Arabako Foru Aldundiarentzat ere. Badakigu gaur egun ez dagoela inolako asmorik arazo horri heltzeko, noizbait aztertutako hainbat proposamen tiraderan gorde baitira.

Gai honetan ere, agintaritzaren arduradunekiko komunikazioa (URA, kasu honetan) ezdeusa da. Eta, gure eskaerei jaramonik egin gabe jarraitzen duten bitartean, ikusten dugu aldian-aldian proiektu batzuk azaleratzen direla, hala nola Barrongo urtegia (ureztatzeko), Trantsizio Ekologikorako eta Erronka demografikorako Ministerioak berak baztertuta, eta haren kostua gure hornidurarako soluzio batena baino 8 aldiz handiagoa izango litzatekeena.



Etxebizitza sozialak alokatzeko

Domingo de Sautu kaleko 22. zenbakian dagoen eraikina eta partzela erosi ditu Udalak, 8 etxebizitza sozial alokagai jartzeko helburuarekin eraikitzeko. Gure arauak ezartzen dizkiguten hainbat mugak Babes Ofizialeko Etxebizitzaren erregimeneko Etxebizitza Legearekin talka egiten dute, eta hirigintza-baldintza horiek gainditzeko prozesuan dago proiektua. Izapide hori bukatu ondoren, aurreikuspenen arabera, eraberritze-proiektua 2021ean egingo da, eta obrak 2022an esleituko dira.



Kiroldegia eraberritzea

Une honetan, udal kirol-instalazioak eraberritzeko eta handitzeko proiektua esleitzen ari dira. Aukeraturako erredakzio-taldeak 2021eko lehen seihilekoan idatzi beharko du.



Kultur Etxea

Aipatutako proiektu guztien artean luzera begirakoena da. Gaur egun, udala 'Villa Jesusa' izenez ezagutzen den etxeko lorategiaren jabea da, eta epe ertainera eraikinarena ere izango da. 2021ean emango dugu lehen urratsa, datozen hilabeteetan zehatz-mehatz azalduko duguna: lorategi eremua espazio publiko gisa berreskuratzea eta egokitzea. Hurrengo urratsak Zuiako Kultur Etxea eraikitzeko proiektua eta obra egitea izango dira. Alde hori erantsitako lursailen hirigintza-garapenearekin lotuta dago. Lursail horiek jabetza pribatukoak dira eta, beraz, udal-kontrolatik kanpo daude. Horregatik, zaila da epeak markatzea.



Txertaketa-karpa gripearen kanpainarako

Urriaren erdialdetik, Zuiako Udalak berogailudun karpa bat jarri du Osasun-zentroaren kanpoaldean, herritarren segurtasuna eta ongizatea garatzeko helburuarekin. Anbulatorioan lekua falta denez, eta pandemian hartu beharreko arreta-neurriak direla eta, zentrok langileek Osakidetzako arduradunei jakinarazi zieten gripearen aurkako txertaketa-kanpaina garatzeko eta, aldi berean, gainerako erabiltzaileak artatzeko arazoak sortuko zirela. Euskal Osasun Zerbitzuak erantzun ez zuenez, udalak txertaketa-zentro gisa funtzionatzen duen karpa bat prestatu eta ordaindu du, kanpainak irauten duen bitartean. Horrela, Zuiako bizilagunen segurtasuna bermatzen da:



pazienteez segurtasun-tartea gorde dezakete, ez dute beste erabiltzaileekin gurutzatu behar, eta ez dute kalean itxaron behar.

Bandalismoa

Zuiako Udalak, berriz ere, azken hilabeteetan eraikin publiko eta pribatuetan, kirol-instalazioetan, ibilgailuetan eta hiri-altzarietan izan diren bandalismo ekintzak eta kalteak

salatu ditu. Ekintza horiek, gizalegezkoak ez izateaz gain, Zuiako herritarrekiko erabateko elkartasun eta errespetu faltaren erakusgarri ere badira.

HAPO berria



Aperregiko aireko ikuspegia. Argazkia: Arabako Foru Aldundia.

Aurrerapen-dokumentuari herritarren iradokizunak erantzun ondoren, une honetan Zuiako Hiri Antolamenduko Plan Orokor (HAPO) berriaren hasierako testua prestatzen ari da erredakzio-taldea. Dokumentu horrek zehatz-

mehatz markatuko du gure udalerrirako hirigintza-eredua, eta udalbatzarrean onartu beharko da. Izapide hori gaintitu ondoren, jendaurrean jartzeko beste fase bat irekiko dira, non alegazioak aurkezteko beste aukera bat egongo den.



Argazkiak: Kontu Kantoi.

ABENDUA

- **19_'BAKARDADEAK GARAITU ZITUENAK'**, Isteria, inmigrazioa, dantzak, bertsoak, balleta eta musika biltzen dituen ikuskizuna. Palatu kiroldegian, 19:30ean
- **26_'DOS VASCAS Y UN DESTINO'**, umorezko bakarhizketak. Palatu kiroldegian, 19:30ean
- **29_'KONTU KANTOI'**, haurrentzako ipuin kontalari ilustratua. Udal liburutegian, 18:00etan

ZUBIAGENDA

Deialdien azken berriak izateko, jo ezazu udalaren webgunera: www.zuia.eus eta udalaren sare sozialetara: www.facebook.com/ZuiakoUdala eta @ZuiakoUdalaTwitterren

Kontraktorik esaten ez bada, iragarritako ekitaldiak Murgian egingo dira. Informazio gehiago eskuratzeko 945 43 01 67 telefono zenbakira dei dezakezu.



Argazkia: Goiko Gela.

URTARRILA

- **10_Gospel** kontzertua, **GOIKO GELA** taldearekin. San Miguel elizan, 19:00 etan

Gomendioak

Euskaraz

- Dinosaurio bat adoptatu _ **Jose Carlos Andres/Ana Sanfelippo**
- Bidean zehar _ **Mariana Ruiz Johnson**
- Rosa itzuli da _ **Pako Aristi**
- Abere ba. Palindoromo ilustratuen piztegia _ **Bigara**
- Noiz arte arrazoi _ **Juan Kruz Igerabide**

Gaztelaniaz

- Pequeñas mujeres rojas _ **Marta Sanz**
- Anatomía de las distancias cortas _ **Marta Orriols**
- Mayo del 68 vasco _ **Elixabete Ansa Goicoechea**
- La vida en el centro _ **Yayo Herrero, Marta Pascual y Maria Gonzalez Reyes**
- Bunker _ **Toteking**



Gure aukerak

Gaztelaniazko liburua

El planeta es de todos

Vandana Shiva

Pobrezia orokorra eta malnutrizioa, errefuxiatuen krisi izugarria, ondoez soziala eta polarizazio ekonomikoa gure errealitate bihurtu dira; izan ere, zazpi mila milioi pertsonatik gorako munduko biztanleriaren % 1ek, planeta eta gainerako biztanle guztiak amildegi ekologiko eta sozialera bultzatzen ditu. Liburu honetan, Shivak Gates, Buffett eta beste 'mogol' moderno batzuen Milioi Askokoen Kluba aurrez aurre izango du. Aipatutakoek pertsonen eskubideei eta haien aurrerapen linealaren eraikuntzak izan duen eragin suntsizailerari dien itsutasunak hondamendiak eragin ditu mundu osoan. Shivak "benetako ezagutzaren, adimen errealaren, benetako lanaren eta benetako ongizatearen berpiztea" eskatu du, pertsonen doan bizitzeko eskubidea eskatu ahal izateko.



Euskarazko liburua

Nobela errealista bat

Joxean Agirre

Gudarien balentriak biltzen eta Loiuko aireportuan jasotako bezeroei kontatzen dizkien taxizaleak, bat-batean, argitaletxe baten enkargua jasoko du liburu bat idazteko; izan ere, Agirrezabal idazle zarauztarra –taxistaren emaztearen maitalea zena– istripu edo atentatu ilun batean hil berri da, El Lobo espioiaz idazten ari zen nobela erdibidean utzita, eta nor egokiago taxizalea baino, eleberri errealista hori amaitzeko? Bere betiko ezaugarriei –sentsualtasuna, metaliteratura, idazketaren dotorezia– dohain berriak erantsi dizkie Joxean Agirrek eleberri honetan: hainbat hari aldi berean jorratzea, gure historia hurbileko istorio txundigarrienak aletzea, ironia dosi oparoak banatzea..., sasoi betean dagoela adieraziz.



Murgiako #LanbideHeziketakInstitutua

Eskualde osorako balio estrategikoa



Basogintzako Lanbide Heziketan ehun ikasle eta dozena bat irakasle daude. Argazkiak: **Murgiako Lanbide Heziketa Institutua**.

Hezkuntza zentroa berrikuntza teknologikoko hainbat proiekturen buru da, hala nola dronen erabilera espezie inbaditzaileak kontrolatzeko.

Duela 30 urtetik hona, Murgiako Lanbide Heziketako Institutuak Basogintzako heziketa-zikloak ematen ditu oinarritzko, erdiko eta goiko mailetan. Eskaera handiko ikasketak dira; itxaron zerrenda ere badago. Bere jarduera nagusia hori izanik ere, zentroak bere ildo estrategikoa berrikuntza teknologikoan eta sektoreko enpresekiko lankidetzan oinarritzea erabaki du. Horren ondorioz, hainbat berrikuntza-proiekturen buru da, enpresa eta erakundeekin lankidetzan. Gainera, lankidetzaprogrametan parte hartzen du Kamerunen eta Senegalen. Eta ikasleek nazioarteko esperientzia bat bizitzeko aukera ere badute, hiru hilabetez Europako herrialdeetan praktikak eginez Erasmus beken bidez. Bestalde, gero eta ikasle gehiagok ikasten dute Lanbide Heziketa (LH) dualean; modalitate horretan, praktiketarako kontratu bat sinatuz, bigarren urtea institutuaren eta enpresaren artean egiten da. Murgiako zentroak gidatzen dituen berrikuntza-proiektuen adibide gisa, SPRIK finantzatutako BASOINSA SL enpresarekin egindakoa nabarmendu behar da. Teledetekzio-teknikak erabiliz eta laser sentsoare aerotransportatuekin

lortutako datuak erabiliz, linea elektrikoaren hornikuntza-eremuetan segurtasun-urraketak automatikoki detektatzeko prozedura bat garatu dute. Teknologia horrek eremu horietako zuhaitzen gaineko esku-hartzeen eraginkortasuna eta kostua handitzen ditu.

Kualifikazioa eta gaitasunak

Aldi berean, beste proiektu batzuetan ere lan egiten dute: dronen erabilera landare-espezie inbaditzaileak kontrolatzeko eta doitasunezko nekazaritzan; kode irekiko baso-prozesatzailearen simulagailuaren garapena; baso-mapak egiteko metodologia Euro-eskualdeetan; tokiko energia-autosufizientzia, kudeaketa jasangarria duten mendietatik datorren biomasaren bidez; Gorbeialdean ingurumen-hezkuntzako jarduerak diseinatzea eta gauzatzea, etab. "Horietan guztietan gure ikasleek modu aktiboan parte hartzen dute. Haien prestakuntzan proiektu horien garapenean eskuratutako ezagutza eta trebetasun guztiak sartzea da helburua, beren kualifikazioa eta gaitasuna handituz", azaldu du Manuel Valbuenak, Murgiako LHko zuzendariak.

#EtxebizitzaJasangarriak Koipe-bereizgailuen garbiketa

2021eko lehen hiruhilekoan koipe-bereizgailuak* garbituko dira. Sukalde eta konketen hustubidetik isurtzen diren koipeak, xaboiak eta antzeko produktuak jasotzeko sistema bat da. Bereizgailuak eragotzi egiten die saneamendu-sarera iristea, araztegiaren kudeaketa iraunkorragoa bultzatuz. Hondakin horiek kendu nahi dituztenek 2021eko urtarillaren 29a baino lehen eman behar dute izena udal bulegoetan. Udal zerbitzua da, dohainekoa. (*: 1990eko hamarkadaz geroztik, Zuiaiko Udalak etxebizitza berri guztietan koipe-bereizgailuak jartzera behartzen du)

#ViviendasSostenibles Limpieza de los separadores de grasas

Durante el primer trimestre del 2021 el ayuntamiento realizará la limpieza de los separadores de grasas*. Se trata de un sistema que retiene grasas, jabones y productos similares que se vierten por el desagüe de cocinas y lavabos. El separador impide que lleguen a la red de saneamiento, favoreciendo una gestión más sostenible de la depuradora. El servicio es gratuito y las personas interesadas en la retirada de estos residuos deben apuntarse en las oficinas municipales antes del 29 de enero del 2021.

(*: desde los años 90, el Ayuntamiento de Zuia obliga a colocar separadores de grasas en todas las viviendas nuevas)

Zuian #JakinBeharrekoa jakiteko Udal Informazio Sarea

Zuiaiko Udalak aspalditik dauka martxan kultura-deialdiak, enplegu-eskaintzak, udal-bandoak... hedatzeko tresna bat: Udal Informazio Sarea. Bertan parte hartu eta gure jakinarazpenak jaso nahi badituzu, bidali zure izena eta helbide elektronikoa hurrengo e-mailera: cristinakulturazuia@gmail.com

La #InformaciónMunicipal en tu email Red de Difusión Local

El Ayuntamiento de Zuia tiene en marcha una herramienta para difundir convocatorias culturales, ofertas de empleo, bandos municipales... Es la Red de Difusión Local. Si quieres sumarte y recibir nuestras notificaciones, no tienes más que enviar tu nombre y dirección de email a cristinakulturazuia@gmail.com

BUKATZEKO 3 KONTU

1_ Zure udalak erantzuten dizu

Udaleko arduradunekin hitz egin nahi duzu? Pasa zaitez udaletxetik, utzi zure telefono zenbakia eta deituko dizugu hitzordua emateko. Edota bidali nahi duzun iruzkina hurrengo e-mailera: azuia.general@ayto.araba.eus

2_ Intereseko telefonoak

Udaletxea: 945 43 00 05
Kiroldegia: 945 43 01 57
Osasun Zentroa: 945 43 00 30
Botika: 945 43 02 36
Guardiako botika: 636 59 30 13
Gizarte Laguntzailea: 945 43 04 60
Eguneko Zentroa: 945 43 03 75
Larrialdiak: 112
Turismo bulegoa: 945 43 04 40
Gorbeialdeko Kuadrilla: 945 43 01 67

3_ Zuiaiko Udala, internet ere

www.zuia.eus



@ZuiaikoUdala

3 COSAS PARA TERMINAR

1_ Tu ayuntamiento responde

¿Quieres hablar con tus representantes municipales? Pasa por el Ayuntamiento, deja tu número de teléfono y te daremos cita. O, si prefieres, envíanos tu comentario por e-mail: azuia.general@ayto.araba.eus

2_ Teléfonos de interés

Ayuntamiento: 945 43 00 05
Polideportivo: 945 43 01 57
Centro Salud: 945 43 00 30
Farmacia: 945 43 02 36
Farmacia de guardia: 636 59 30 13
Asistente Social: 945 43 04 60
Centro de Día: 945 43 03 75
Urgencias: 112
Oficina de Turismo: 945 43 04 40
Cuadrilla de Gorbeialdea: 945 43 01 67

3_ También estamos en

www.zuia.eus



@ZuiaikoUdala